

Guggenheim Bilbao Museoak

2012ko irailaren 20an aurkeztuko du

Bizitako arkitektura



Bizitako arkitektura

- Inaugurazio-data: 2012ko irailaren 20a
- Komisarioa: Lucía Agirre
- Kokapena: Aretoak: 301, 302, 303 eta 304

- Guggenheim Bilbao Bildumaren sei lan aurkezten ditu erakusketak. Gehienak ez dira inoiz erakutsi; egileak nazioarteko bost artista dira: Liam Gillick, Doris Salcedo, Cristina Iglesias, Mona Hatoum eta Pello Irazu.
- Arkitektura- eta espazio-kontzeptua aztertzen du erakusketak, bai eta horiek dagoeneko existitzen den istorio bat edo ikusleak sortzear dagoen istorio bat azaltzeko duten ahalmena.

Guggenheim Bilbao Museoak *Bizitako arkitektura* aurkeztuko du 2012ko irailaren 20tik 2013ko maiatzaren 19ra arte. Guggenheim Bilbao Bildumaren lanak ikusgai izango dira, eta arkitektura zer den aztertuko du erakusketak, baita arkitekturak guk eraikitako iragana eta orainaldia eta besteekin ditugun harremanak iradokitze gaitasuna duela. Arkitektura darabilgu *Arts and Crafts* mugimenduaren sortzaile Wiliam Morrisek 1881ean proposatu bezala: “[*Arkitektura da*] giza bizitza inguratzen duen inguru fisiko oro: ezin dugu arkitekturatik ihes egin, zibilizazio batean bizi garen neurrian; arkitekturak islatzen du giza beharrak asetzeko lurraren azaleran eragindako aldaketen multzoa, basamortu hutsa izan ezik”. Ondorioz, bizitzeko egokiak diren eraikinez edo eraikuntzez gain, hiriak, kaleak, kale-altzariak eta, finean, gizonak eginiko guztia hartzen du arkitekturak.

Erakusketak bost nazioarteko egileren sei lan hartzen ditu, guztiak ere Guggenheim Bilbao Bildumarenak. Artistok lekuek, tokiek, eraikinek, narrazioak eratzen dituztela —dagoeneko zehaztutakoak nahiz ikusleek sortzear daudenak— aditzera eman nahi dute, eta ideia horretan hausnartzera bultzatu.

Erakusketa honen harira, Guggenheim Bilbao Museoak ondorengo lanak aurkezten ditu lehen aldiz: Liam Gillick artista britainiarraren *Nola jokatu duzu? Sukaldeko katu bat hizketan* (*How are you going to behave? A kitchen cat speaks*, 2009); Doris Salcedoren *Titulurik gabea* (2008); Mona Hatoumen *Gure etxea* (*Home*, 1999); eta Pello Irazuren *Bizitza formak 304* (*Life Forms 304*, 2003). Erakusketa osatuz, Cristina Iglesiasen *Titulurik gabea (Alabastro gela)* [*Sin título (Habitación de alabastro)*, 1993.] eta *Titulurik gabea (Sareta II)* [*Sin título (Celosía II)*, 1997].

303. aretoak **Liam Gillick** (Aylesbury, 1964) artista palestiniar-britainiarraren *Nola jokatu duzu? Sukaldeko katu bat hizketan* (*How are you going to behave? A kitchen cat speaks*, 2009) lana hartuko du. 2009ko Veneziako Bienalaren Alemaniako pabilioirako egin zuen, eta Guggenheim Bilbao Museolari dohaintzan eman zion gerora. Instalazio hau moduluz osatutako pinu zurezko sukalde bat da eta Margarete Schütte-Lihotzky arkitekto eta nazien aurkako aktibistak babes ofizialeko etxebizitza batzuetarako 1920ko hamarkadan diseinatu zuen Frankfurt sukaldean oinarrituta dago. Lan honetan kalitateko diseinua lortzeko utopia modernoa eta bizitzeko gune egokien inguruko diskurtso modernoa aztertzen ditu Liam Gillick-ek, bere ibilbidean behin eta berriro jorratuko dituen gaiak, alegia. Instalazioan, disekatutako katu bat dago modulu baten gainean, bizitakoaren, harremanen, utopia eta malenkonien, amets eta etsipenen, denboraren iragaitearen eta etengabeko aldaketen inguruan berba eginez ikusleari eta, honela, erakustokia eta ikuslearen burua hotsez betez.

302. aretoak Cristina Iglesiasen bi lan eta Doris Salcedoren (Bogota, 1958) *Titulurik gabea* (2008) eskultura hartuko ditu. Artista kolonbiarraren lana 1989an hasitako sorta baten zati da; gaur egun oraidik sorta horretan lan egiten du, eta egun arte egindako handiena da. Muntaketa lanen sorta handi horretan, kalean aurkitutako altzariak Kolonbiaren, sorterraren, historia politiko asaldua aztertzeko erreminta bilakatzen dira: “*orain arte egindako lan guztiek Kolonbiako guduaren benetako biktima baten testigantza zuzenen bat dakarte*”. Doris Salcedok zaharkitutako altzariak forma hibridoetan elkartu eta tarteko hutsuneak eta gainazalak zementuz estaltzen ditu; lorturiko objektuak, beren materia-ezaugarrien bidez, banako zein taldekako esperientzia traumatikoen lekuko mutu bilakatzen dira.

Parean, **Cristina Iglesias** (Donostia, 1956) artista euskaldunaren *Titulurik gabea (Sareta II)* [*Sin título (Celosía II)*, 1997] lana dugu. Bertan, eliza katolikoen aitorlekuen edo haren musulmanen sareta tipikoa berraztertzen du; eskultura-objekturako sarrera galaraziz, haren eginkizuna galbideratu du eta, hortaz, ikusmira huts eta zentzubakarrekoa azaltzen du, kanpotik barrurakoa. Aipatutako mugek gure jakin-mina oztopatzen dute, solaskideen absentsia nabarmendu eta jatorrizko izenburuaren “celosía” gaztelaniazko hitzaren esanahi bikoitzaren antzera (alegia, zursareta eta jeloskeria), bete bako ametsez, errezeloez eta ezinegonez, ase bako desioez hitz egiten digute. Izaera primitiboa ematen die ia Cristina Iglesiasen saretei; adobezko eraikin naturalenak gogoratzen dituen akabera dute. Aldi berean, zatikatutako hitzak ezkutatzen ditu zursaretan bertan; ikusleak beren esanahia, historia bat, iragan bat bilatuko du baina, beste behin, bere itxaropena ase gabe geratuko da. Bitzeko arkitektura ezegokia da artelana, historien eta ase gabeko desioen bidez zehazten dena. Halaber, Cristina Iglesiasena da paretan eskegitako *Titulurik gabea (Alabastro gela)* [*Sin título (Habitación de alabastro)*, 1993,] lana. Arkitektura irekia, zeharrargia eskaintzen du, eta ikuslea alabastroaren sendotasunaz eta hauskortasunaz babestuta dago. Babes hauskor eta sendo horrek inguruarekin jartzen gaitu harremanetan, berau aldatzen du eta bere ezaugarrien eskutik aldatua suertatzen da; muga bakarra gure historia pertsonala da.

Mona Hatoum (Beirut, 1952) artista palestiniar-britaniarraren *Gure etxea (Home)*, 1999) lana, Museoaren 301. aretoa beteko du. Mahai handi bat da eta bere gainean sukaldeko hainbat tresna daude, metalezko matxarden eta kableen bidez elkarlotuta. Azken horiek argindar hargune bati entxufatuta daude. Informatika-programa baten bidez, elektrizitateak objektu batzuen pean ezkutatuko zenbait bonbilla txiki argizatzen ditu, eta intentsitate eta frekuentzia erregulatzen ditu; aldi berean, sortzen den durundia bozgorailuen bidez ozentzen da. Instalazioa altzairuzko kablez horizontalez hesituta dago,

ikuslea, ukituz gero, objektu hilgarri horietatik urruntzeko. Bere ibilbidean eginiko beste lan garrantzitsuenetan bezalaxe, Mona Hatoumek eszenatoki beldurgarria eta mehatxatzailea sortu du lan honetan; etxeko gunekin lotzen ditugun berotasun- eta segurtasun-oinarrien kontra doa; horrelaxe nabarmendu du bere xedeetako bat: erreakzio emozionala sortzea ikuslearengan, erakarpenaren eta nazka, ezaguna eta ezezaguna aldi berean.

Pello Irazu (Andoain, 1963) artista gipuzkoarrak erakusketa-gunea eraldatzen du ***Bizitza formak 304 (Life Forms 304, 2003)*** lanarekin. 304. aretoaren arkitektura instalazioaren osagaietako bat da: horma ikuslea inguratzen duen pentagrama moduko bat da, espazio-pertzepzioa eraldatzen du. Eraikitako objektua, berriz, aretoaren erdiko gunea hartzen du, eta babesleku iraganezina bilakatzen da, itxura ezegonkorrekoa. Askotariko material zein kolore uztartzeak berreraikuntzaren aurretiko eraiste baten, erabilitako guneen, iraganean bizitako gune edo arkitekturen sentsazioa ematen digu.

Erakusketa honetan, eta Guggenheim Bilbao Bilduman garrantzitsuak diren bost artisten lanen bidez, espazioaren inguruan hausnar dezake ikusleak, bai eta esperientziek, historiek eta pertsonen arteko harremanek gune bat bizitzeko eta okupatzeko modua baldintzatzen dutela. Arkitektura guztiek beren historia dute —etxekoa zein publikoa; isolatutako gizakiarena nahiz gizaki taldekoiarena— baina iragankortasunaren da beti gai: une zehatz batean bizitako horren edo erakusketa honetan bizitzeko zorian zauden horren historia (edo istorioa).

Didaktika guneak

Erakusketa hainbat ikus-entzunezkoz osatuta dago. 303. aretoaren ondoko korridorean daude ikusgai. Xedea erakusketaren bost artisten sorkuntza-lana eta lan hauek sortzeko prozesuak azaltzea da. Pantaila bakoitzean Liam Gillick, Mona Hatoum, Cristina Iglesias, Pello Irazu eta Doris Salcedoren hausnarketak jasoko dira. Erakutsitako lanak ulertzeko gakoetako bi dira: arkitekturak iraganeko eta egungo historiarekin (taldearena zein norbanakoarena) duen harremana eta bisitariak lanak eta hauek hartzen dituzten espazioak ezagutzerakoan bizitzen dituzten esperientzia pertsonalak.

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel: +34 944 35 90 08
Faxa: +34 944 35 90 59
www.guggenheim-bilbao.es (prentsa arloa)

Prentsa irudiak:
Bizitako arkitektura
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.es

Liam Gillick (Aylesbury, Erresuma Batua, 1964)

Nola jokatu duzu? Sukaldeko katu bat hizketan (*How are you going to behave? A kitchen cat speaks*), 2009

Zura, lanparak, katu diseinatua, testua, errezela, MP3 gailua

Neurri aldakorak

Guggenheim Bilbao Museoa

Artistaren dohaintza, honako hauen laguntza eskuzabalarekin: Casey Kaplan Gallery, New York, eta Esther Schipper, Berlin



Mona Hatoum (Beirut, 1952)

Gure etxea (*Home*), 1999

Zura, altzairu galbanizatua, altzairu herdoilgaitza, kable elektrikoak, krokodilo-matxarda, bonbillak, ordenagailu bidezko erregulagailua, anplifikadorea eta bozgorailua

76,2 x 198,1 x 73,7 cm (mahaia)

Dimensiones totales variables

Edición 1/3 + 1 P.A.

Guggenheim Bilbao Museoa



Cristina Iglesias (Donostia, 1956)

Titulurik gabea (*Alabastro gela*) [*Sin título* (*Habitación de alabastro*)], 1993

3 zati. Burdina eta alabastroa

Guztizko neurri aldakorak

Guggenheim Bilbao Museoa



Cristina Iglesias (Donostia, 1956)

Titulurik gabea (*Sareta II*) [*Sin título* (*Celosía II*)], 1997

Zura, erretxina eta brontze-hautsa

260 x 350 x 300 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



Pello Irazu (Andoain, Gipuzkoa, 1963)

Bizitza formak 304 (Life Forms 304), 2003

Burdinazko, kontratxapatua, zura eta zinta itsaskorra y pintura mural.

Eraikuntzaren neurriak: 360 x 315 x 340 cm

Kokapen zehatzeko guztizko neurriak

Guggenheim Bilbao Museoa



Doris Salcedo (Bogota, 1958)

Titulurik gabea, 2008

Zura, metala eta zementua

78 x 247 x 121 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

